

Garapen Iraunkorra Haur eta Gazte Literaturaren bidetik

Garapen Iraunkorrerako Literaturaren Gida (1-6 helburuak) kaleratu berri du hezkuntzaren eta literaturaren alorretako irakasle talde batek, eta online dago eskuragarri.

Gida deskargatzeko esteka:

<https://addi.ehu.es/handle/10810/54613>



Gidaren nondik norakoak azaltzen dituen orrialde beteko azalpenen ondoren, Agenda2030eko lehenbiziko sei helburuei lotutako ibilbide literarioak proposatzen dira. Ibilbide literario bakoitzean lauzpabost irakurketa aholkatzen eta komentatzen dira, bai eta balizko lanketa batzuk proposatzen ere. Hala, pobrezia desagerraraztea, goserik eza, osasuna eta ongizatea, kalitatezko hezkuntza, genero berdintasuna eta ur garbia eta saneamendua lantzeko aukera ematen duten zenbait irakurgairi buruzko gogoetak eskaintzen zaizkie bitartekariei.

Hain zuzen ere, gidaren helburuak dira, batetik, literaturaren erabilera sustatzea Garapen Iraunkorrerako Helburuak (GIH) lantzeko eta, bestetik, bitartekariei tresnak eskaintzea literatura-lan egokiak hautatzeko eta baliatzeko.

Gida hau UPV/EHUko Iraunkortasunerako Zuzendaritzak sustatutako Campus Bizia Lab programaren baitan egin da.

Egileak:

Aperribay-Bermejo, Maite

Encinas Reguero, María del Carmen

Esparza Martín, Iratxe

Fernández de Gamboa Vázquez, Karla

Ibarluzea Santisteban, Miren

Perales-Fernández-de-Gamboa, Andrea